

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Tximiniak garbitzeko dirulaguntzetarako deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 815845.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/815845>.

Alkatearen 2025eko otsailaren 13ko ebazpena, Arratzua-Ubarrundiako udalerrian dauden eraikinetako tximiniak garbitzeko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena, norgehiagokaz bestelako prozeduraren bidez. 2025eko deialdia.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Onuradun izango dira erabilera legeztatua duten eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian kokatuta dauden eraikinen jabeak edo gozamedunak diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta tximinia deialdian adierazitako epearen barruan garbitu badute eta dagokion eskaera egiten badute.

Bigarrena.- Xedea

Deialdiaren xedea da udalerrian dauden eta tximinia duten eta haren erabilera legeztatua duten eraikinetako tximinien garbiketa aldiaren behin egin dadin sustatzea, eta Arratzua-Ubarrundiako Udalak, bere eskumenen esparruan, tximiniak garbitzearen kostuagatik dirulaguntza bat emateko prozedura arautzea.

Titular bakoitzeko eraikin bakarra lagunduko da diruz urtean.

Bi urtean behin bakarrik lagunduko da diruz eraikin bateko tximiniaren garbiketa.

Diruz lagundu ahal izango dira enpresa baimenduek tximiniak garbitzearen ondoriozko gastuak, 2024ko azaroaren 14tik 2025eko azaroaren 14ra bitartean egin badira eta gastu horietarako dirulaguntzarik eskatu ez bada.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2020ko urriaren 26ko bilkuran aldatu eta urtarrilaren 8ko 2/2021 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70erainokoa izango da, gehienez ere 50,00 euroko mugarekin.

Gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion adjudikazioak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ezingo da gainditu egindako gastuaren ehuneko 90.

Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrien eranskinean ageri den ereduan egin behar dira, eta oinarrietan jasotako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, eta aurkezteko epea 2025eko azaroaren 15ean bukatuko da.

Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Dirulaguntzaren eskaera normalizatua, behar bezala beteta, oinarrien I. eranskineko ereduaren arabera.

Tximiniak garbitzen aditua den eta garbiketa egin duen enpresak egindako fakturaren kopia, baita faktura ordaindu izanaren egiaztagiria ere.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada.

Dura, 2025eko otsailaren 17a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE